

INFORMAZIO OROKORRA - EGUESIBARKO SILBESTRE DEUNA 2016

Eguesibarko udalak eta Hiruki Triatloi Taldeak, Eguesibarko XVII Silbestre Deuna antolatuko dute.

Data: 2016ko abenduaren 31.

Ordutegia: Txikiak 10:00ean - Helduak 11:30ean.

Irteera eta helmuga: Olatzeko plazan (Olatzeko kiroldegitik gertu).

Izen-ematea: soilik <http://equestriatlon.blogspot.com.es/>

Epea: Abenduaren 12tik 30ra bitarte.

Kategoria guztien dortsalen jasotzea: HIPERCOR-en, ITAROA Merkataritza Gunean.

Epea: abenduaren 28, 29 eta 30a, 18:00 etatik 21:30 etara.

Prezioak: Helduek 9 € abenduaren 27a arte, 12 € helduek abenduaren 28, 29 eta 30a edo dortsalak agortu arte (16tik 75 urtera bitarte) eta txikiek 2 € (15 urte arte).

“0” dortsala: Nafarroako Elikagaien Bankua laguntzeko aukera egonen da, izen- ematean ekarpen ekonomikoa eginez. www.bancoalimentosnavarra.org

Proba eguneko ordutegiak:

10:00etan: kadeteak, 13-14-15 urte, 1700 m.

10:15ean: haurrak, 11-12 urte, 1350 m.

10:30ean: alebinak, 9-10 urte, 970 m.

10:40etan: benjaminak, 7-8 urte, 480 m.

10:50ean: haurtxoak eta hasiberriak, 0-6 urte, 290 m.

11:30ean: helduak, 16-75 urte, 4900 m.

12:00etan: hamaiketako herrikoia korrikalari eta gainerakoentzat.

12:15ean: sari banaketa.

Atletentzat dutxa zerbitzua egonen da Olatzeko kiroldegian.

Informazio gehiago: <http://equestriatlon.blogspot.com.es/>

SARIAK - EGUESIBARKO SILBESTRE DEUNA 2016

Helduen kategorian lehendabiziko 3 postuetan sailkatutakoak sarituak izanen dira (gizonezko zein emakumezkoetan) eta helduen kategorian izen-emandako gainerakoentzat, kamiseta tekniko bana.

Zozketak: Helmuga inguruan zorionekoen dortsalak idatzirik izanen dituen panela jarriko da. Zozketa, antolakuntzak burutuko du froga baino lehen eta honakoak barnebiduko ditu: material anitza, hainbat saltokietan erabiltzeko bonoak, esfortzu probak, ardo sortak eta froga amaitzen duen ororentzat kaxa bat Lacturale esne.

Sariak eskuratzeko ezinbestekoa izanen da dortsala aurkeztea.

Txikien kategoria:

- Oparitxo bana parte hartzaileentzat.

Helduen kategoria:

- Lehendabizikoa: garaikurra, lore-sorta eta bazkari ala afari bi lagunentzako DON CARLOS jatetxean.

- Bigarrena: Garaikurra.

- Hirugarrena: Garaikurra

ARAUDIA - EGUESIBARKO SILBESTRE DEUNA 2016

1.: Antolakuntzak ez du inolako ardurarik bere gain hartuko proba honetan parte hartzeagatik atletak berak bere buruari edota veste pertsona bati egin diezakiokeen kalte-galera edota lesioengatik, ez eta hirugarren pertsona batek atletari egin lizkiokeenengatik.

2.: Frogak iraun bitartean, korrikalaria hartatzeko beharrezko zerbitzua eskainiko du DYAK.

3.: Korrikalariak dortsala bularrean eta erraz ikusteko moduaneraman beharko dute ibilbidean zehar burutuko diren kontrolak errazte aldera.

4.: Froga amaitzeko gehieneko denbora: 45'.

5.: Parte-hartzea libre da, hala ere gomendagarria da korrikalariak aldeztu aurretik osasun-azterketa bat egin dezaten.